

## **Emakunde Lehendakaritzan Berdintasun politika publiko duin batzuen alde**

Krisialdian, benetako asmoak edo oinarrian dagoena azaleratzen dela diote. Horiek horrela, Iñigo Urkullu lehendakariaren hirugarren legegintzaldi jarraian (2020-2024), Covidaren krisi betean, EAJ-PSEko gobernuak berdintasun-politika publikoek haien zer esan nahi duten erakutsi digute: Emakunde, Lehendakaritzatik Gizarte politiketako sailera eramanez<sup>1</sup>. Horrek esan nahi du, gobernu jeltzale eta sozialistarentzat, berdintasunerako politika publikoek euskal administrazioaren maila hierarkiko eta eragin handieneko eremutik ateratu behar direla, eta Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxiki, egoera konplexua kudeatu behar delako, non bizitzaren sostengarritasuna jokoan dagoen. Erabaki horrek, hortaz, bigarren maila batean kokatzen ditu berdintasun-politikak eta "emakumeen arazoak" konpontzeko politika espezifiko gisa tratatzen ditu, eta, finean, Gobernuaren praktika osoan eragiteko gaitasuna kendu.

1995ean Beijingen egin zen Emakumeen Munduko IV. Konferentzian parte hartu zuten estatuek erabaki zuten berdintasunerako unitateak Gobernuetako presidentzietan kokatu behar zirela, politika publikoaren zentralitatea hartu ahal izateko eta mainstreaming estrategia edo genero-zeharkakotasuna deitu izan dena garatzeko.

Irizpide horrekin bat, eta Beijingeko akordioei aurrea hartuta, 1988an, Emakunde sortzeko Legean, Emakunde Lehendakaritzara inskribatu zen, eta hor jarraitu du orain arte. Gure harridurarako, Iñigo Urkullu jaunak Emakunde birkokatu du, gainerako sailetan eragiteko gaitasunik ez duen sail batean. Hala, Emakunde ikuspegi honetatik lan egitera bultzatzen du: emakumeak kolektibo bat gara (eta ez biztanleriaren erdia baino gehiago) eta, gainera, kolektibo zaugarria<sup>2</sup>.

Aipatzekoa da, aurreko legealdian, Eusko Jaurlaritzan zuzendaritza bera zegoela eta, Berdintasunerako Legea (2015etik dago indarrean) aldatzeko eta zabaltzeko, lege-proiektu bati ekin zitzaioela. Talde zein erakunde feministetatik eta beste gizarte-erakunde batzuetatik lege-proiektua aztertzen eta horri ekarpenak egiten aritu ginen. Proiektu berri horretan jaso zen, Urkullu lehendakariaren gobernuak proposatuta, euskal administrazio publiko guztietako berdintasun-unitateek "posizio organikoa eta harreman funtzional egokia izan behar dutela, erabaki politikoak hartzeko orduan modu eraginkorrean eragin ahal izateko, bai eta beren helburuak betetzeko behar besteko aurrekontu-zuzkidura ere"<sup>3</sup>. Hau da, berdintasun arloak lehendakaritza-arloetan kokatu behar dira.

Covidak sortutako krisiak agerian utzi du, antza, asmo horiek soilik martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko adierazpen instituzional politikoki zuzenak direla, eta hitz eta argazki politikak berdintasun-politikak ahultzen dituzten praktika politiko eta instituzionalak itxuraldatzeko besterik ez direla. Baina, beste behin ere, Iñigo Urkullu lehendakariaren

<sup>1</sup> <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/cu/bopv2/datos/2020/09/2003520e.shtml>

<sup>2</sup> Era berean, azpimarratzekoa da Eusko Jaurlaritzak Emakunde Lehendakaritzatik ateratzeko erabili duen prozedura zuzenbidearen aurkakoa dela; izan ere, lege batek Lehendakaritzan kokatzen du Emakunde, eta azpiko maila juridikoa duen arau batek ezin du aldatu. Horrek esan nahi du, lege bat aldatzea ekarriko lukeelako, Jaurlaritzak aldaketa hori Eusko Legebiltzarretik igaro beharko lukeela, baina badirudi berdintasunaren arloan legeak urratu ere egin daitezkeela.

<sup>3</sup> [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas\\_marco/es\\_ley\\_igua/adjuntos/borrador\\_anteproyecto.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_marco/es_ley_igua/adjuntos/borrador_anteproyecto.pdf)

erabakiak erakusten du krisi-garaian emakumeek (eta badirudi berdintasun-politikek ere) "beren lekura" itzuli behar dutela. Hain zuzen ere, sukaldara, etxera, zaintza lanetara, kontratu partzialetara, edota prekarietate gorenean aurkitzen diren etxeko langile egoiliarren egoeretara (azken horiek kontraturik gabe daude kasurik gehienetan eta Atzerritartasun legeak sustatu egiten du emakume horien eskubideen urraketa).

Hainbat ahots eta praktika feministatik aldarrikatzen ari gara administrazio publikoen lehenetsuneko helburua izan behar dela bizitza duinak lehenestea eta bizitza horiek posible egiteko bitartekoak jartzea. Gainera, badakigu Covidak eragindako egoerak eragin handiagoa izan duela eta izango duela emakumeengan\*. Horregatik aldarrikatzen dugu bizitza eta horren sostengua erdigunean jarriko duen krisiaren kudeaketa. Jendearen beharrak azalarazten ari diren egoera hau baliatu nahi dugu: bizitza modu bizigarrian zaintzeko neurriak pentsatu nahiz hartzeko, bizitza zaintzeko eta benetan beharrezkoak diren egitura publiko, sozial eta komunitarioak zein diren birpentsatzeko. Argi dugu, horretarako, ezinbestekoak direla berdintasun-politika sendo eta eraginkorrak.

Lehendakariaren erabakiak agerian utzi du ez dagoela konpromisorik berdintasun-politika eraldatzaileak martxan jartzeko, emakumeen\* egoera hobetzeko, eta gizarte berdinzaleago zein bidezkoago baterantz urratsak emateko.

Horregatik guztiagatik, Euskal Herriko Mugimendu Feminista osatzen dugun hainbat taldek dei egin nahi diegu talde eta eragile feminista guztiei, eta gertuko beste talde sozialei, Eusko Jaurlaritzari eginiko salaketa eta zigor publiko honekin bat egin dezaten. Era berean, dei egiten diogu Eusko Jaurlaritzari ahalik eta lasterren zuzen dezan bere hanka sartze itzela.

## Atxikimenduak

- Bizitzak Erdigunean, Euskal Herriko Koordinadora Feminista
- Garaipen Taldea
- Emagin Elkartea
- Mujeres Del Mundo Babel - Munduko Emakumeak
- Euskal Herriko Bilgune Feminista
- Trabajadoras No Domesticadas
- Colectiva XXK
- Urola Garaiko Koordinadora Feminista (UGKF)

## **Emakunde en Lehendakaritza**

### **Por unas políticas públicas de igualdad dignas**

Dicen que en los momentos de crisis emergen las verdaderas intenciones o lo que hay de fondo, pues bien, en la tercera legislatura consecutiva del Lehendakari Iñigo Urkullu (2020-2024), con la gestión de la crisis del Covid por delante, el ejecutivo del PNV-PSE nos ha mostrado lo que significan las políticas públicas de igualdad para ellos, trasladando Emakunde de Lehendakaritza al Departamento de Políticas Sociales<sup>4</sup>. Esto viene a significar que el ejecutivo jeltzale y socialista considera que ahora que toca arremangarse para gestionar una situación compleja, en la que urge atender cuestiones relacionadas con el sostenimiento de la vida, las políticas públicas para la igualdad deben salir del espacio de mayor rango jerárquico e influencia de la administración vasca y quedar adscritas al Departamento de Justicia y Políticas Sociales. Esta decisión supone relegarlas a un segundo plano, tratándolas como políticas específicas para resolver “los problemas de las mujeres”, y restándoles su capacidad de influir en la totalidad de la práctica del Gobierno.

Desde la IV Conferencia Mundial de las Mujeres, celebrada en Beijing en 1995, los estados participantes acordaron que las unidades para la igualdad debían estar situadas en presidencia, para poder así ocupar la centralidad de la política pública y desarrollar lo que se viene llamando estrategia de mainstreaming o transversalidad de género.

Coincidiendo con ese mismo criterio y adelantándose a los acuerdos de Beijing, en 1988, con su Ley de creación, Emakunde se adscribe desde entonces a Lehendakaritza. Hasta ahora, cuando para nuestra sorpresa, el señor Iñigo Urkullu decide ubicar a Emakunde en un departamento sin capacidad de incidencia en el resto de los departamentos abocando a Emakunde a trabajar desde la perspectiva de que las mujeres somos un colectivo (y no más de la mitad de la población), y un colectivo vulnerable.<sup>5</sup>

Hay que mencionar también que la pasada legislatura, con la misma dirección en el ejecutivo vasco, se abordó un proyecto de ley para modificar y ampliar la Ley para la Igualdad (vigente desde el 2015). Desde los grupos y organizaciones feministas, así como desde otras organizaciones sociales, estuvimos estudiando y haciendo aportaciones al proyecto de ley. En dicho proyecto se recogía, a propuesta del ejecutivo del Lehendakari Urkullu, que las unidades de igualdad de todas las administraciones públicas vascas “deben de tener una posición orgánica y una relación funcional adecuada, que les permita incidir de forma efectiva en la toma de decisiones políticas, así como una dotación presupuestaria suficiente para el cumplimiento de sus fines”<sup>6</sup>, es decir, que deben ubicarse en las áreas presidenciales.

Parece que la crisis generada por el Covid ha venido a desmontar estas intenciones, que se convierten así exclusivamente en declaraciones políticamente correctas iguales a las de

---

<sup>4</sup> <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/09/2003516a.shtml>

<sup>5</sup> También es relevante señalar que el procedimiento del Gobierno Vasco para sacar a Emakunde de Lehendakaritza es contrario a derecho, ya que es una Ley la que sitúa a Emakunde en Lehendakaritza y una norma, de rango jurídico inferior, no puede modificarla. Esto significa que el ejecutivo debería pasar ese cambio por el Parlamento Vasco, ya que implicaría la modificación de una Ley, pero parece que en materia de igualdad se puede hasta incumplir las leyes.

<sup>6</sup> [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas\\_marco/es\\_ley\\_igua/adjuntos/borrador\\_anteproyecto.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_marco/es_ley_igua/adjuntos/borrador_anteproyecto.pdf)

los 8 de Marzo y 25 de Noviembre. Palabras y fotos bonitas que vienen a maquillar prácticas políticas e institucionales que debilitan las políticas de igualdad. Esta decisión del Lehendakari Iñigo Urkullu muestra una vez más que en momentos de crisis las mujeres (y parece que también las políticas de igualdad) tienen que volver a “su sitio”: a la cocina, al hogar a cargar ellas con todo el cuidado, al contrato parcial, y a la precariedad más precaria de las sin contrato y secuestradas en el régimen de internas, secuestros auspiciados y patrocinados por la Ley de extranjería.

Desde diferentes voces y prácticas feministas venimos reivindicando que sostener vidas dignas de ser vividas y hacerlas posibles debe ser un objetivo prioritario de las administraciones públicas. Además, sabemos que la situación derivada del Covid ha generado, y va a seguir generando, un mayor impacto sobre las mujeres\* y queremos una gestión de la crisis que ponga la vida común y su sostenimiento en el centro. Queremos aprovechar el marco de necesidad para la formulación y toma de medidas que resuelvan cómo cuidamos la vida, para repensar cuáles son de verdad las estructuras públicas, sociales y comunitarias necesarias para cuidarla y sostenerla. Y para ello, son imprescindibles unas políticas de igualdad sólidas y eficaces.

Esta decisión del Lehendakari pone de manifiesto la falta de compromiso para generar las condiciones que posibiliten políticas de igualdad transformadoras que mejoren las condiciones y situaciones de las mujeres\* y avancen hacia una sociedad más igualitaria y, por tanto, más justa.

Por todo ello, diversos grupos que componemos el Movimiento Feminista de Euskal Herria queremos hacer un llamamiento a todos los grupos y agentes feministas y otros grupos afines a que se sumen a esta denuncia y sanción pública al Gobierno Vasco. A su vez, llamamos a que el Gobierno Vasco rectifique lo antes posible su garrafal desacierto.

## Adhesiones

- Bizitzak Erdigunean, Euskal Herriko Koordinadora Feminista
- Garaipen Taldea
- Emagin Elkartea
- Mujeres Del Mundo Babel - Munduko Emakumeak
- Euskal Herriko Bilgune Feminista
- Trabajadoras No Domesticadas
- Colectiva XXK
- Urola Garaiko Koordinadora Feminista (UGKF)